

NIZAKO TRATATUA.

IV ERANSKINA

Politika erkideak ezartzeko orduan kontuan hartu beharreko kirolaren ezaugarri bereziei eta Europako gizartean duen zereginari buruzko adierazpena.

1. Egungo kirol egiturak babestu eta kirolak Europako Batasunean bete behar duen zeregin sozialari heltzeko Europako Batzordeak Helsinkiko Kontseilu Europarrari 1999ko abenduan aurkeztu zion kirolari buruzko txostenaren berri izan du Kontseilu Europarrak. Kirol antolakundeek eta estatu kideek berebiziko erantzukizuna dute kirol arazoak aurrera ateratzeko orduan. Arlo horretan eskumen zuzenak ez baditu ere, Tratatuaren xedapenen indarrez aurrera atera behar dituen jardueretan Erkidego europarrak kontuan izan behar ditu kirolak gizarte, heziketa eta kultura arloan dituen zereginak, horiexek baitira kirolaren ezaugarriak, horrela zeregin sozial hori babesteko behar diren etika eta elkartasuna zaindu eta sustatzeko.

2. Europako Kontseiluak, batez ere, nahi duena da kirol praktikaren maila guztiek beren artean duten elkartasun lotura eta kohesioa babestea, lehiaketak zuzenak izatea, kirolarien eta batez ere adingabeko kirolari gazteen interes moral eta materialak eta osotasun fisikoa zaintzea.

Zaleen kirola eta guztiontzako kirola egitea.

3. Kirola giza jarduera da, gizarte, hezkuntza eta kultur balio funtsezkoetan oinarritua. Gizarteratzeko, gizarte bizitzan parte hartzeko, tolerantzia izateko, ezberdintasunak onartzeko eta arauak errespetatzeko balio duen faktorea da.

4. Kirol jarduera herritar guztiek beren eskura izan behar dute, bakoitzaren asmoak eta gaitasuna errespetatuz eta lehiaketako edo astialdiko praktika guztiak, antolatuak izan edo banakakoak, eskainiz.

5. Elbarri eta adimen ezinduentzat jarduera fisikoa eta kirola egitea bitarteko pribilegiatua da pertsona gisa garatzeko, birgaitzeko, gizarteratzeko eta elkartasunerako, eta horregatik sustatu egin behar dugu. Horri buruz, Europako Kontseilua poztu egiten da Sydneyko joko paralinpikoekekarpen baliotsu eta eredugarria egin dutelako.

6. Erkidego europarrak bere eskumenen barruan eman dezakeen laguntzarekin, estatu kideek kirol boluntarioak sustatu behar dituzte, boluntario horiek behar bezala babestuz eta betetzen duten zeregin ekonomiko eta soziala onartuz.

Kirol federazioen zeregina.

7. Kirol antolakundeen autonomiaren alde eta elkartzeko egitura egokien bidez nahi bezala antolatzeko duten eskubidearen alde hartu duen konpromisoa nabarmendu nahi du Europako Kontseiluak. Kirol antolakundeei ematen die, Zuzenbide nazionalari eta komunitarioari men egiten badiote eta demokratikoki eta gardenki egiten badute lan, helburuak lortzeko iruditzen zaien erarik onenean kirola antolatu eta kirol diziplina sustatzeko zeregina, batez ere kirolari dagozkion arauak direnean eta ekipo nazionalak eratu behar direnean.

8. Egiazatu du, kirol praktikaren maila ezberdinak daudenez batera –aisialdiko kirolek hasi eta maila handiko kiroleraino-, kirol federazioek oso zeregin garrantzitsua betetzen dutela kirol praktikaren maila ezberdinen artean beharrezko elkartasuna egon dadin: egiten duten lanak balio du kirol ikuskizunetako atea jende askori irekitzeko; zaleen kirolari giza eta finantza laguntza emateko; mutil eta neskei, bereizketarik egin gabe, maila guztietako kirolerako bidea irekitzeko; gazteei prestakuntza emateko; eta kirolarien osasuna babesteko eta dopingaren, biolentziaren eta adierazpen arrazista edo xenofoboaren kontra egiteko.

9. Zeregin sozial horiek erakusten dute erantzukizun bereziak dituztela federazioek, beren gaitasuna lehiaketak antolatzen erakusten dutelarik.

10. Kirolaren munduaren bilakaera kontuan edukiz, kirol kohesioa eta demokrazia partehartzailea bermatuko duen antolakuntza modu bateko elementu garrantzitsua izaten jarraitu behar dute federazioek.

Kirol prestakuntzako politikak babestea.

11. Kirolari gazteak prestatzeko politikak beharrezkoak dira kirola, talde nazionalak eta goi mailako kirola suspertzeko, eta sustatu egin behar dira. Kirol federazioak, herri agintariekin batera behar izanez gero, eskudun izango dira dituzten klubaren prestakuntza gaitasuna eta prestakuntza horren kalitatea babesteko beharrezko diren neurriak hartzeko, Zuzenbidearen eta praktika nazional eta komunitarioen arabera jokatzeko badute.

Gazte kirolarien babesa

12. Europako Kontseiluak kirolaren praktikak gazteentzat dituen onurak azpimarratzen ditu eta beharrezkotzat hartzen du batez ere kirol antolakundeek goi mailako gazte kirolarien heziketa eta prestakuntza profesionala arreta handiz zaintzea, mundu profesionalean sartzen direnean ez dezaten, beren kirol karrerak direla eta, oreka psikologikorik eta famili loturarik galdu, ez eta osasunik ere, zehazki dopingari aurrea hartuz. Pozik daude Europako Kontseiluan elkarte eta antolakundeek egiten duten lanarekin, izan ere egiten duten prestakuntza lanari esker exijentzia horiei erantzuten baitiete, horrela gizarteari ekarpen handia eginez.

13. Europako Kontseiluak bere kezka adierazten du adingabeko kirolariek, atzeritik datozen kirolariek ere, egiten dituzten merkatuko salerosketak direla eta, indarrean dagoen lan araudia ez dutelako betetzen edota gazte kirolarien osasuna eta ongizatea arriskuan jartzen direlako. Kirol antolakundeei eta estatu kideei dei egiten die praktika horiek iker ditzaten, begira ditzaten eta, behar den kasuetan, hartu beharreko neurriak har ditzaten.

Kirolaren eta elkartasunaren inguru ekonomikoa

14. Europako Kontseiluak uste du finantza agente berdinek diziplina bereko lehiaketetan parte hartzen duten kirol klub batzuk mendea edukitzeak lehiaketaren zuzentasuna kaltetu dezakeela. Beharrezko balitz, kirol federazioei adore eman nahi die klubak kudeaketa kontrolatzeko neurriak har ditzaten.

15. Telebistatik emateko eskubideak saltzea diru iturri garrantzitsuetako bat da gaur egun kirol diziplina batzuentzat. Europako Kontseiluak uste du salmenta horietatik datozen diru irabaziak, maila egokietan eta kirol praktika nazionalak kontuan edukiz, denen artean banatzeko hartutako ekimenak onuratsuak direla kirol praktikaren maila guztien eta diziplina guztien artean egon behar duen elkartasunaren printzipioa babesteko.

Kirolariak eskualdatzea

16. Europako Kontseiluak adierazten du biziki dagoela kirol mugimenduaren, batez ere futbol agintarien, kirolari profesionalen ordezkari diren antolakundeen, Erkidegoaren eta estatu kideen arteko elkarriketaren alde, zuzenbide komunitarioaren barruan kirolaren behar bereziak kontutan edukiko dituen eskualdaketa erregimena aldatuz joan dadin.

* * * * *

17. Eskatzen die erakunde komunitarioei eta estatu kideei beren politikak aztertzen jarraitzeko, Tratua errespetatuz eta dituzten eskumen arabera, printzipio orokor hauek gogoan edukiz.